berria info

Osteguna
Uztailaren 5a
2012. X. urtea
2.803. zenbakia
1,30 €
www.berria.info

Arafaten heriotza
Yasser Arafat buruzagi palestinarra pozoitu ote zuten aztertzen ari dira 17

Enpresei eta aberatsei zergak igoko dizkie Frantziak, 7.200 milioi lortzeko

François Hollanderen gobernuak bertan behera utziko ditu aurreko legealdian Nicolas Sarkozy lehendakari ohiak klase aberatsenei egindako zerga beherapen batzuk

Espainia, berriz, murrizketa plan gogorra ari da prestatzen; besteak beste, langabezia sariak txikitzea eta pentsioak izoztea dauka buruan Mariano Raxoiren gobernuak 14



CERNHANDOUT / EFE

Higgs bosoia, aurkitua. LHC azeleragailuko bi esperimentutan atzeman dute Higss bosoia, aurkikuntza ofiziala izateko adinako ziurtasunez. Zientzialariek 40 urte eman dituzte haren bila. Izan ere, beharrezkoa zen oinarrizko partikulen teoria ontzat emateko. Adituek garrantzi handia eman diote aurkikuntzari, unibertsoa ulertzeko beste aurrerapauso bat dela iritzita. Irudian, esperimentuan egindako neutroi talka bat. 2-3

Beste 3.600 laguni kenduko die Lanbidek oinarrizko errenta

Urtea hasi zenetik 5.668 pertsonari kendu die Jaurlaritzak diru sarrerak bermatzeko errenta, eta 47,88 milioi euro aurreztu dituela nabarmendu du 15

Langile bat hil da Zumaian, Okin enpresan, hartzitze aska batera erorita

Metano gasa arnastuta hil da behargina, 26 urterekin; laguntzera joan diren 11 lankide intoxikatu egin dira, eta haietako batek larri segitzen du 16

Okin enpresa, atzo. JUAN HERRERO / EFE

Portlandek 36.500 tona hondakin erreko ditu urtean Olatzagutian

Udalez gaindiko eragina duen proiektu bat dela ebatzi du Nafarroako Gobernuak, eta lantegiak 1,67 milioi euro inbertituko ditu zaborra errausteko 8

Deikaztelu-Ezkio goi tentsioko lineari eutsi egin nahi dio REEk 11

Bihar
BERRIArekin
herrialdeko hitza info

GAUR 40 ORRIALDE · HARIAN 2 · IRITZIA 4 · EUSKAL HERRIA 6 · EKONOMIA 14 · MUNDUA 17 · KIROLA 20 · AGENDA 25 · PLAZA 30